

2018 AZA. 28

**TOLOSAKO UDALA**

**2018 AZA. 28**

**SARRERA - ERREGISTROA**

ZKA. .... 228 .....

Kaixo:

Tolosaldeko lagun talde bat gara eta honen bidez, honekin doan idatzia Tolosako Udal Batzarreran aztertzea eta bertan adierazten denarekin bat etorritz gero bertan adierazten dena onartzea eskatu nahi dugu.

Adeitasunez,

*Anaje*

(Lagun taldearen izenean)  
Anaje Urkola Astiasaran  
35767123F

## Oriol Junquerasetikiko elkartasuna

Kataluniatik Tolosara bisitari asko etortzen zaizkigu gure herriaz goatzera. Bestalde, harreman historikoak egon dira tolosarren eta katalanen artean kulturaren esparruan zein beste batzuetan.

Harreman horien testuinguruan koka daiteke aspalditik urtero-urtero gure herrira Oriol Junqueras jauna, Generalitatearen lehendakariordea, etorri izana. 2018an huts egin du, ez da etorri, ez bere borondatez, baizik eta akusazio zentzugabe bat medio preso delako. Oriolen 'bekatua' herritarrei hitza ematea besterik ez da izan, demokrazia aplikatu nahi izatea hain justu.

Iruditzen zaigu tolosar bezala ezin dugula isilik gelditu egoera horren aurrean. Gure herria estimatzen eta maitatzen duen Oriol kartzelan ikusteak min egiten digu, tolosar eta lagun bezala. Tolosarrok Orioli gure elkartasuna adieraztea ezinbestekoa dela uste dugu. Oriolek kalean behar du egon, Espainiako justiziaz egozten dizkion kargu horiek guztietatik garbi gainera, demokrazian sakontzea ezin duelako inoiz delitu izan.

Elkartasuna Oriolen pertsonarengan irudikatzen badugu ere, elkartasun hori bera zabaltzen diegu gainerako exiliatu eta preso politiko katalanei.

Horregatik guztiarengatik Tolosaldeko herritar moduan Tolosako udalbatzari eskatzen diegu onar dezala osoko bilkuran:

- 1- Oriol Junqueras jaunari Tolosako herriaren elkartasuna eta errespetua adieraztea, azpimarratuz beragan irudikatzen dugula gainerako preso politiko eta exiliatuekiko elkartasuna.
- 2- Bat egiten duela tolosarren nahiarekin eta espero duela Oriol gure artean berriz ere bisitari izatea ahalik eta eperik motzenez eta kargu guztietatik libre.

Tolosan, 2018ko azaroaren 19an

Tolosaldeko lagun taldearen izenean.

Sinatzaileak:

Izaskun Apezetxea Zinkunegi 72437029-R

Iñaki Urkizar Zubelzu34094826-V

Jon Gotzon Gurruchaga Ugalde 72457563-I

Idoia Urkola Astiasaran 35777758-Q

Lourdes Pikasari Esnaola 08924743-F

Jose Luis Agirrezabala Aizpurua 15965174-C

Anaje Urkola Astiasaran 35767123-F